

Euskadiko kontsumorako eta ereiteko patataren sektore-plana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ELIKADURA, LANDA GARAPEN,
NEKAZARITZA ETA
ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN,
DESARROLLO RURAL,
AGRICULTURA Y PESCA

Euskadiko kontsumorako eta ereiteko patataren sektore- plana



araba álava
foru aldundia diputación foral

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2026

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke : <https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Argitaraldia 1.a, 2026eko martxo

Ale-kopurua: 110 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila

Internet: www.euskadi.eus

Argitaletxea : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Inprimatzea: Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua

Lege-Gordailua: LG G 121-2026

EDUKIAREN AURKIBIDEA

1. DIAGNOSTIKOA	04
1.1. TESTUINGURUA	
1.2. PATATA ARABAN	
1.3. PATATAREN BILAKAERA ARABAN 1995ETIK AURRERA	
1.4. PATATAREN NAZIOARTEKO EKOIZPENA	
1.5. PATATAREN ESTATUKO EKOIZPENA	
1.6. PATATARI BURUZKO DATUAK ARABAN	
1.7. PATATA KONTSUMOAREN JOERAK	
1.8. PATATAREN MANUFATURA INDUSTRIA ARABAN	
2. AMIA	09
2.1. AHULEZIAK	
2.2. MEHATXUAK	
2.3. INDARGUNEAK	
2.4. AUKERAK	
3. ESTRATEGIA ETA HELBURUAK	13
3.1. MAKRO MAILAKO HELBURUAK	
3.2. MIKRO MAILAKO HELBURUAK	
3.3. HEDAPEN OPERATIBOA	
A. EZAGUTZA	
B. JASANGARRITASUNA	
C. AZPIEGITURAK ETA EKIPAMENDUA	
D. POSIZIONAMENDUA	
E. GOBERNANTZA	
4. AGINTE TAULAK	21
4.1. ESKU HARTZEAREN INPAKTU AURREIKUSIA	
4.2. ADIERAZLEEN TAULA	
4.3. JARRAIPEN TAULA	

1. DIAGNOSTIKOA

1.1. TESTUINGURUA

Patata-landaketa, bai ereiteko, bai kontsumorako patatarena, oso nabaria izan zen Arabako nekazaritzan XX. mendean.

Klimatologia, altimetria eta edafologia, berez, aproposak ziren patata landatzeko eta, nekazariak egindako apustua gehituta, beste eragile batzuk ere inplikatzeko trakzio-indarra lortu zen.


Erakundeek ikerketa eta garapena sustatu zituzten, eta eraiteko patataren garapena indartu zen batez ere. Hala, erreferentzia bihurtu zen estatuan.

Espainia EEEEn sartu zenez geroztik (1987), landatzea behera egiten hasi zen, atzerriko merkaturatzaile lehiakorragoak sartu ziren eta.

1.2. PATATA ARABAN



1.3. PATATAREN BILAKAERA ARABAN 1995ETIK AURRERA



LABOREAREN BILAKAERA 1995etik

Lursaila ↓ **75%**
 Ekoizpena ↓ **65%**


EREITEKO PATATAREN

Ereiteko patataren beste mugari garrantzitsu bat, eta berriagoa, 2021ean gertatu zen Brexitarekin. Debekatuta dago Eskoziako oinarriko patata eskuratzea, nagusia oinarriko patatatik inportatua (% 40).

Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren estatistikak.

1.4. PATATAREN NAZIOARTEKO EKOIZPENA


Patataren sektoreak ez du Merkatu Antolakunde Erkiderik (MAE), eta estatuan ere ez da lanbidearteko egiturarik garatu, Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan ez bezala. Horren eraginez, ekoizpen-mailak eta prezioa gorabeheratsuak dira merkatuan. Horri gehitu behar zaio eskaintzaren eta eskariaren estatuko eta nazioarteko merkatuak ez daudela arautua; gainera, ekoizpenak urtaroen mende daude, baita kanpaina bakoitzeko baldintza meteorologikoen mende ere. Hala, ustiategiek ez daukate errentagarritasuna ziurtatuta, eta inbertsio zein lan handiak behar dira. Horrek guztiak nabariki baldintzatzen du nekazaritzak patataren aldeko apustua egitea.



MUNDUKO EKOIZPENA 2024an

383,1 milioi T

Txina	% 24
India	% 16
Europar Batasuna	% 13
Munduaren gainerakoa	% 47
Espainia	% 0,5




EUROPAKO EKOIZPENA 2024an

Alemania	% 26
Frantzia	% 16
Herbehereak	% 13
Polonia	% 12
Belgika	% 8
Danimarka	% 5
ESPAINIA	% 4

Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren estatistikak. 2024ko kanpainari buruzko txostena

1.5. PATATAREN ESTATUKO EKOIZPENA



Espainiak 1,2 milioi tona inguru inportatzen ditu urtero, barruko eskariari erantzuteko eta herrialdeko enpresa merkatutzailen eta industria eraldatzaileen premiak asetzeko.


Kontsumorako patataren inportatzaile handiena Frantzia da, inportazioen % 75ekin. Aitzitik, ereiteko patataren inportazioaren % 67 Herbehereetatik dator.

PATATA-EKOIZPENA ESPAINIAN		1.910.622 t	
KONTSUMORAKO PATATA	Inp.	1.211.710 t	% 75 Frantzia
	Esp.	383.049 t	
EREITEKO PATATA	Inp.	63.673 t	% 67 Herbehereak

Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren estatistikak. 2024ko kanpainari buruzko txostena

1.6. PATATARI BURUZKO DATUAK ARABAN

Patataren azaleraren bilakaera



2024			
	AZALA (ha)	EKOIZPENA (t)	USTIAPENAK
KONTSUMO	669	32.059	121
EREITE	440	5.227	45

Iturria: Nekazaritzako Estatistikak (Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila)

2023an, patata-landaketak 8.809 mila euro eragin zituen nekazaritzaren azken ekoizpen gisa, hots, guztizkoaren % 3,4 eta estentsiboan landatutako azaleraren % 1,8.


Kontsumorako patataren prezioari dagokionez, 0,28 €/kg izan zen 2024an, nekazari bakoitzeko.

Prezioa gorabehera handien mende dago, ekoizpen-kostuak ez erdiestearen ondorioak arintzeko. Iraganean, konpentsazio-funts bat zegoen. Gaur egun ezin da horrelakorik eskuratu.


Patata ekoizteak arriskuak onartzea dakar, prezioaren oszilazioak eta meteorologiak kanpaina bakoitzean duen eragina ikusita.

Azken lau urteetan, ekoizpen-kostuak dezente handitu dira, energiagatik eta kostu espezifikoengatik (haziak, ongarriak eta fitosanitarioak) batez ere.

EKOIZPEN-KOSTUAK (€/kg)



€/kg



Iturria: Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren estatistikak

1.7. PATATA KONTSUMOAREN JOERAK

EKOIZPENA PERTSONAKO 19,45 kg	AUTOHORNIKUNTZA TEORIKOA % 75
ETXEKO KONTSUMOA 20,9 kg	ETXETIK KANPOKO KONTSUMOA 5 kg
ETXEKO GASTUA 24,40 €	ETXETIK KANPOKO GASTUA 9,60 €

Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren estatistikak.

Datu teorikoak ikusita, Arabako patataren ekoizpenak ezingo luke EAEko biztanleriaren eskaria ase.

Patata freskoaren kontsumoak beheranzko joera du. Dena den, inportatzen den patataren bolumena kontuan izanik, ez da datu garrantzitsu bat gaur egun.

Patatak elikagai-produktuen bilakaera orokor bera du. Elikagai eraldatuen kontsumoa gorantz doa ezbairik gabe, komenentziaren arabera.

Patata freskoari dagokionez, garbitua merkaturatzen da batik bat, eta horrek baldintzatzen du zein mota landatu eta nola kudeatu uztaren ostean.

Industriarako patataren eskaria gorantz doa, eta horrek ere mota zehatzak behar ditu, eraldaketara egokitzen direnak (eskuztatu, izoztu, pasteurizatu, frijitu...).

1.8. PATATAREN MANUFATURA INDUSTRIA ARABAN

Arabako Lurralde Historikoan patata landatzeko tradizioak produktuaren manufakturara bideratutako elikagaigintza garatzea sustatu du. Enpresa horietako batzuk merkatu nazionaleko operadore nagusien artean daude.

Patata freskoa egokitzeari deritzogu manufaktura, linealetan saltzeko asmoarekin. Hau da, Araban, patata hautatu, eskuilatu, garbitu, ontziratu eta eraldatzea (IV. eta V. gamak) alor horretan diharduen enpresa-sare garrantzitsu bihurtu da.

Enpresa horien fakturazioa handia dela jotzen da, Arabako elikagai- eta edari-industria osoak sortzen duenaren % 7 eta % 10 arteko irismena duela uste baita. Alde horretatik, aintzakotzat hartu behar da edari-industria lurraldeko jarduera nagusia dela, guztizkoaren % 67 sortzen du eta.

2. AMIA

AMIA esaten zaio ahulezia, mehatxu, indargune eta aukeren azterketari, eta Euskadiko patata-sektorearen egoeraren argazki finkoa islatzea du xede.

Merkatua oso zabala denez, azterketa lehiakortasun-faktoreen ikuspegitik egin zen. Kasu honetan, zortzi hautatu ziren: (1) produktua, (2) merkaturatzea (bezeroak, prezioak, merkaturatzeko kanalak, kontsumo-joerak), (3) baliabide naturalak, (4) beste ekoizpen-baliabide batzuk: giza faktorea, (5) gainerako ekoizpen-baliabideak (azpiegitura, intsumoak eta makineria), (6) teknologia eta I+G, (7) lankidetzaren eta elkarlana sektorearen barruan edo arlo pribatuan eta (8) erakundearen babesa.

Lehiakortasun-faktoreen bidez, ekoizpen-sektore baten arrakastarako gakoak identifikatzen dira, hots, zerk eragiten duen sektore horiek funtzionatzea eta garapena edukitzea, eta alderantziz. Nahiz eta horietako zenbait aplikagarri izan litezkeen jarduera edo industria ugaritan, lagungarriak dira faktore giltzarri bat ere ez dadin azterketatik at geratu, sektore bakoitzaren funtsezko alderdiei erreparatzen zaielako.

Gainera, nahiz eta patataren sektoreari oro har erreparatu zaion, batzuetan bereizi izan dira ereiteko patata eta kontsumorako patata, jarraian adieraziko diren datuetan ikusten den moduan.

2.1. Ahuleziak

Bi alderdi gailentzen dira: langile eskasia (hainbat faktorerengatik) eta ekoizpen-bolumen txikia. Halaber, ereiteko patatan bereziki, beste herrialde edo merkatu ekoizle batzuekiko mendekotasuna ere nabarmentzen da.

• Langile eskasia maila guztietan (teknikariak, ekoizleak...)	Giza faktorea
• Belaunaldien arteko erreleborik eza	Giza faktorea
• Gogorik eza eta jarduera uztea (landatzeko arriskuak, denbora eskaintzea, familia-kontziliazioa...) Ez dago patatak landatzeko interesa duten ekoizlerik.	Giza faktorea
• Landatzeko azalera urria, inbertsioak amortizatu edo patata-motak garatzearen aldeko apustua egiteko zailtasunak	Produktua
• Patata landatzea denborari oso lotuta egotea, eta arrisku handia	Produktua

• Brexitaren ostean (Eskozia), ziurtagiridun hazirik ez (ereiteko patata)	Produktua
• Kanpoko motekiko mendekotasuna (ereiteko eta kontsumorako)	Produktua
• Prezio gorabeheratsuak eta arautu gabe	Merkatua
• Merkataritza Europa iparraldean bideratzen da (ereiteko eta kontsumorako patata)	Merkatua
• Nekazari txikiek, makineria eta teknologia eskuratzeko zailtasunak	Beste EB batzuk
• Ekoitzi ahal izateko hasierako inbertsioa, handia	Beste EB batzuk
• Lursailen tamaina murrizta	Beste EB batzuk
• Administrazioarekiko elkarrizketa, hobetzeko modukoa	Erakundeen babesak
• Gehiegizko burokrasia (sektorearen pertzepzioa)	Erakundeen babesak
• Uretzatzeko ahalmena ahal baino gutxiago erabiltzea, eta ezin eskuratzeko	Erakundeen babesak
• Bezeroek ez ezagutzea patata-motak, erabilera, nola egin... Zer erosi eta zergatik erosi	Idea berriak

2.2. Mehatxuak

Kezka berezia dago debeku fitosanitarioek ekoizpenean izan dezaketen inpaktuagatik, bereziki ereiteko patatari dagokionez. Bestalde, alde aurretik identifikatu diren ahulezia batzuei zuzenean lotutako beste mehatxu batzuk aipatu behar dira; adibidez, lan- eta gizarte-aldaketak, edo beste ekoizpen-eskualde batzuen lehia.

• Aldaketak lan-merkatuan eta gizartean	Giza faktorea
• Lur falta, beste jarduera batzuen lehiagatik	Giza faktorea
• Gaixotasun berriak, edo lehendik egon izan direnak berriz agertzea (ereiteko eta kontsumorako patata)	Produktua
• Kontrolatu gabeko produktua sartzea kanpotik (ereiteko)	Produktua
• Beste ekoizpen-eskualde batzuen lehia, eta inportazioak (ereiteko eta kontsumorako patata)	Merkatua
• Kontsumo-ohiturak aldatzea (karbohidrato gutxiko dietak, etab.) (kontsumorako)	Merkatua
• Debeku fitosanitarioak, bestelako aukera argirik gabe	Erakundeen babesak

• Ezer egiten ez badugu, sektorea gaur egun ezagutzen dugun bezala desagertu egingo da (inbertsio-funtsak, etab.)	Ideia berriak
• Nazioarteko Holandako enpresen ahalmena	Teknologia, I+G
• Klima-aldaketa (osasun- eta agronomia-zaugarritasuna)	Baliabide naturalak
• Lurzorua zaintzea	Baliabide naturalak

2.3. Indarguneak

Besteak beste, landatzearen errentagarritasuna eta merkaturatzen den produktuaren errentagarritasuna aipatzekoak dira. Jatorriaren bereizgarri aitortuak, eskari egonkorra eta ekoizpen- eta merkataritza-egitura sendoak dira bermeak. Zehazki, indargune hauek azpimarratu behar dira:

• Aurreko belaunaldiaren ezagutza aprobetxatzea	Giza faktorea
• Patata landatzea errentagarria da (ereiteko eta kontsumorako)	Produktua
• Jatorriaren eta kalitatearen bereizgarriak (kontsumorako)	Produktua
• Patata berantiarak, kontserbazioa handiagorako aukera (kontsumorako)	Produktua
• Hazietan kalitate ona lortzeko gaitasuna (ereiteko)	Produktua
• Patata-eskari handia (ereiteko eta kontsumorako)	Merkatua
• Industria- eta eraldaketa-sektore garatua (kontsumorako)	Merkatua
• Merkaturatze-kanalak garatuta (ereiteko eta kontsumorako)	Merkatua
• Ereiteko patataren jarraipena, kontrola eta ziurtagiriak bideratzeko zerbitzua	Erakundeen babesa
• Erakundeen babesa sektoreari	Erakundeen babesa
• Azken bezeroek hemengoa nahi izatea, prezio onean eta kalitate onarekin	Ideia berriak
• Tokiko teknologia- eta ikerketa-zentroak egotea	Teknologia, I+G
• Ikerketa-lerro berriak irekitzeko gaitasuna	Teknologia, I+G
• Laborantza garatzeko lurzoru aproposak	Baliabide naturalak
• Kooperatibek esperientzia izatea. Katea indartzen dute, merkaturatzea, biltegitratzea eta banaketa erraztuz.	Elkarlana

• Loturak dituzten industriak eta enpresak ezarrita egotea	Elkarlana
• Ekoizpen-sektoreari babesa, teknika- eta merkataritza-mailan	Elkarlana

2.4. Aukerak

Nabarmendu behar da patata-mota berriak garatu direla eta laugarren zein bosgarren gamako elikagai-produktuen hazkundera gertatu dela. Hala, hazteko bideak izan daitezke. Era berean, kontsumitzaileek hurbileko produktua behar dute, jasangarriagoa dela uste baita. Aldi berean, beste aukera batzuk ikusten dira: teknologiak eskaintzen dituenak, batetik, eta sektore gisa egin daitezkeen antolaketa-hobekuntzan, bestetik, bere kabuz edo administrazio publikoaren laguntzarekin.

• Gaikuntza, garapena eta talentua fidelizatzea	Giza faktorea
• Berrikuntza patata-motetan: kalitatea eta erresistentzia (ereiteko eta kontsumorako)	Produktua
• Kalitate oneko produktua eskatzea (kontsumorako)	Produktua
• Berrikuntza laborantzaren kudeaketan (ereiteko eta kontsumorako)	Produktua
• IV. eta V. gamaren hazkundera (kontsumorako)	Merkatua
• Produktu jasangarria eta tokikoa nahiago izatea (kontsumorako)	Merkatua
• Merkataritza-defizita aukera gisa	Merkatua
• Nekazaritza-asegurua premia berrietara eta klima-aldaketara egokitzea	Erakundeen babesa
• Ereiteko kalitate oneko patata saritzeko formulak berreskuratzea	Erakundeen babesa
• Konpentsazio-funtsa berreskuratzea, kanpainen arriskuak txikiagotzeko	Erakundeen babesa
• Kostuak optimizatzea eta errendimendua handitzea	Beste EB batzuk
• Azpiegiturak mekanizatzea: makineria, biltegiak...	Beste EB batzuk
• Ekoizpena antolatzeko beste modu batzuk	Beste EB batzuk
• Doitasunezko nekazaritza	Teknologia, I+G
• Sektorea digitalizatzeko aukerak	Teknologia, I+G
• Balio-katea ixteko kontzentrazioa: "lanbidearteko gisako formatua". Sektorearen antolaketa (adibidea: Frantzia)	Elkarlana

3. ESTRATEGIA ETA HELBURUAK

Hasieran, kontsumorako patata eta ereiteko patata ez bereiztea proposatu bezalaxe, baliteke informazio hori gehitzea beharrezkoa izatea kasu jakin batzuetan.

3.1. Makro mailako helburua

Arabako patataren balio-katea indartzea mundu-mailan, bai ereiteko, bai kontsumorako patatarena.

3.2. Mikro mailako helburua

1. Landatutako azalera handitzea (ereiteko eta kontsumorako)
2. Kalitatea eta errendimendua handitzea (ereiteko eta kontsumorako)
3. Ekoizpen-katea merkatuaren eskarietara egokitzea

3.3. Hedapen operatiboa

Adierazi diren helburuak eta lekuan bertan egiten den esku-hartzea bat datozela ziurtatze aldera, hedapen operatiboa esku hartzeko ardatzen bidez egituratzen da.

Ikuspegi horrekin, inpaktuaren trazabilitatea bermatzen da, eta esku-hartzearen eraginkortasuna indartzen, bost ardatz baliatuz:

A. EZAGUTZA

Esku hartzeko arlo honetan, xedea sektorearen gaitasunak indartzea da, ezagutza baliagarria sortuz, transferituz eta aplikatuz. Hartara, trebakuntza, aholkularitza teknikoa eta ikerketa aplikatua lotzen dira. Ezagutza estrategikoa da, berrikuntzarako, profesionalizaziorako eta laborantzaren etengabeko hobekuntzarako zeharkako motor-lana egiten duelako.

1. Ezagutza *ad hoc* sortzea, HAZIren Behatokiaren bitartez. Sektorea hobetzeko, informazio eguneratua, espezifikoa eta baliagarria behar da, erabakiak hartu ahal izateko. Alde horretatik, sektoreko informazioa HAZIren Behatokiaren bidez garatuko da, patataren behatoki tekniko gisa. Azterketaren esparrua ekoizpenaz harago joango da, eta kate-balio osoaren jarraipena txertatuko da. Horretarako, diagnostiko doiagoak, joerei buruzko txostenak eta politika publikoen inpaktuei

buruzko azterketak egingo dira, erronka berriei aurrea hartzeko. Modu horretan, sektorearen kudeaketa estrategikorako funtsezko tresna izango da, eta agintemahai sinoptikoa finkatu behar da, kanpainen egoera irudikatzeko landa-laneko datuak eta merkataritza-erreferentziak bateratuz.

2. Trebakuntza-programak sektorean. Nekazari eta langile teknikoentzako trebakuntza-programa osoa abiarazteko aukera planteatzen da, batez ere gazteei begira. Programa horretan, jardunaldiak, ikastaroak eta tailer espezializatuak egongo dira, gai garrantzitsuen bueltan: adibidez, patata-moten kudeaketa, laborantza antolatzea eta jasagarritasuna. Trebakuntza diseinatzen denean, sektorearen benetako premiak aintzakotzat hartuko dira, eta ikuspegia praktikoa eta motibatzailea izango da, kasu arrakastatsuak oinarri hartuta. Erreferentziazko mugarri gisa, ekoizle espezializatu izateko urteko ikastaroa egongo da, nazioartekoa izateko asmoarekin, eta Europar Batasunean erreferentzia diren trebakuntza-estandarrekin lerrokatuta.

3. I+G+b landa-lanean. Aldi berean, ikerketa-gaitasun propioa indartuko da, ereiteko patataren inguruan Neikerrek duen ildo indartuz eta I+G+b arloko plan espezifikoa eginez, ekoizpen-sektorearekin elkarlanean, zuzenean. Planaren helburua erronka teknikoak, ingurumenari eta patata-motei lotuak konpontzea izango da, landa-lanean benetako inpaktua duten heinean. Horrez gain, doitasunezko nekazaritzako teknologien erabilera sustatuko da: sentsoreak, monitorizatzeko tresnak, intsumoak optimizatzeko sistemak... Errendimendua hobetu eta ingurumen-inpaktua txikiagotzeko.

4. Ezagutza-trukea sektorearen barruan. Ezagutza trukatzeko espazioak sortzea proposatzen da, aurrez aurrekoak zein digitalak, nekazarien, teknikarien eta adituen arteko interakzio jarraitua errazteko. Ezagutza-sare horren xedea sektorearen adimen kolektiboa indartzea da, eta jada abian dauden ekimenen laguntza izango dute; adibidez, AKIS sistemarena, Neikerren Berritzen Planarena edota HAZIren Behatokiarena. Bestalde, sektorea etengabe elikatzeak aukera jarri da mahai gainean, zaintza teknologikoari eta laborantzaren bideragarritasun ekonomikoari buruzko informazio eguneratuarekin. Metatzen den ezagutza babeste aldera, aurreko belaunaldiak ere trebakuntza-prozesuetan parte hartzea sustatuko da. Egiturazko errefortzu gisa, sektorearen bilerak maizago egitea sustatuko da, eta bilera horiek askotarikoagoak izatea eta eragile publiko eta pribatuak neurri handiagoan inplikatzeko.

5. Ikuskaritza-talde espezializatuaren laguntza. Oso garrantzitsua izango da ikuskaritza-talde espezifikoa egotea ereiteko patataren sektorean. Talde horrek nahikoa baliabide izan behar ditu, eta eguneratze teknikoko prozesuan egon behar du etengabe. Taldeak bi misio izango ditu: alde batetik, kalitate-estandarrek, landare-osasuna eta ziurtagiriei buruzko indarreko araudia betetzen direla bermatzea, eta beste aldetik, laguntza tekniko jarraitua ematea ekoizleei, laguntzeko ikuspegiarekin, ez horrenbeste kontrolaren ikuspuntutik. Era horretan, ikuskaritza-zerbitzu bizkorra, hurbilekoa eta baliagarria sendotu nahi da nekazariarentzat.

6. Proiektu pilotuak edo erakustaldiak egiteko proiektuak. Plan pilotuak abiaraziko dira lurraren eta partaidetzaren ikuspegitik, tokian tokiko nekazariekin. Horien bidez, laborantza-teknika berriak baliozkotu, izurriteak detektatu, patata-mota interesgarriak landu eta merkaturatze-eskema bideragarriak jorratu nahi dira. Pilotu horien plangintza eskalagarria izango da, eta fase zein eremu estrategikoen arabera antolatuta. Horrez gain, Faro finka garatzea aurreikusten da, Iturrietako baserri esperimentaleko benetako ustiategi batean. Zehazki, ereiteko patataren ekoizpen aurreratuan teknika berriak erakusteko espazio iraunkor baten gisara sortu da.

7. Akordio estrategikoak I+G+b-aren harira. Ildo giltzarrietako bat izango da patata-motei buruzko ikerketaren eta berrikuntzaren arloan erreferentzia diren nazioarteko entitateekin aliantza estrategikoak finkatzea. Aliantza horiek Neikerren bitartez gauzatuko dira batik bat, eta, hartara, material genetiko berritzailea, merkataritzako patata-mota berriak eta laneko metodologia aurreratuak eskuratu ahaliko dira, EAEko ereiteko patataren lehiakortasuna indartzeko helburuarekin. Orobat, Europako eta nazioarteko foro zientifiko eta teknikoetan parte hartzea sustatuko da, bereziki I+G+b planari lotuta daudenetan (adibidez, European Association for Potato Research, EAPR). Euskadi ezagutzaren eta nazioarteko elkarlanaren abangoardian kokatzea izango da xedea.

B. JASANGARRITASUNA

Patata-landaketan, jasangarritasunari neurri-multzo oso baten gisara begiratzen zaio, sektorearen bideragarritasuna ziurtatzeko epe luzera, bai ingurumenaren ikuspegitik, bai ikuspegi ekonomiko, sozial eta estrategikotik. Beraz, jasangarritasuna zaurgarritasunak murriztu, nekazaritza-sistemaren erresilientzia areagotu eta, etorkizunean, baliabideak, talentua eta merkatuak eskuratzen direla ziurtatzeko tresna bat da hemen.

8. Tuberkulu txikiak ziurtatzea. Azpiegituretan inbertitzeko ekintza garrantzitsu bat planteatu da, tuberkulu txiki osasuntsuak, genetikoki kontrolatuak eta girora moldatuak ekoizteko, patata-moten oinarri sendoa eta kalitatea bermatzeko funtsezko urrats gisa. Ekintza horren barruan, berotegi automatizatuak, girora moldatzeko ganberak eta beharrezkoak diren beste ekipo tekniko batzuk instalatuko dira. Hedapen horretan, Neikerren egungo azpiegiturak dimentsionatuko dira.

9. Abian dauden nekazaritza- eta ingurumen-laguntzak mantentzea. Ereiteko patata landatu dadin sustatzeko, NPBren nekazaritza- eta ingurumen-eskemen barruan kokatuko da, osasun-baldintza onak dituzten nekazaritza-txanda jasangarrietan txertatzea saritzen den heinean. Ekintza horren bidez, laborantza ezartzen lagundu ahalko da, ekonomia- eta ingurumen-irizpideen pean.

10. Produktu fitosanitarioak etengabe berrikustea, batez ere birosiak direla eta. Bestalde, fitosanitario gomendatuen katalogoa urtero eguneratuko da, izurriteen kudeaketa bateratua errazteko. Hortaz, produktuen katalogoa egingo da urtero, merkatuan dauden aukerak hobeto ezagutzeko eta, horrenbestez, tratamenduen emaitzak hobetzeko, eraginkortasunaren eta errendimenduaren logikaren barruan.

11. Uraren erabilera optimizatzea, lurraldeko baliabide hidrikoen erabilera orekatua ziurtatzeko eta egun eskubiderik ez duten ustiategiei ureztatzea errazteko, ureztatzaileen komunitateen bidez. Horrela ez da egongo gutxiegi baliatzen den azpiegitura hidraulikorik, ezta mantentze-lanetan gabeziak dituenik ere.

12. Patataren nekazaritza-asegurua kontratatu dadin sustatzea; pedagogia- eta dibulgazio-ekintza; eta ekoizleek ulertzea.

13. Gazteak patataren sektorera sartzea. Sektorea jasangarria izateko, egiturazko aldaketetara egokitzen den erantzun bat behar da. Horretarako, langileak sartzeko bidea egituratuko da Euskadiko nekazaritzako belaunaldi-erreleborako estrategia osoan, eta laguntza-foku espezifikoa bat egongo da Arabako dibertsifikazio-ardatz gisa, aukera-nitxotzat jotzen den heinean.

14. Zeharkako ekintza bat langileak lortzea izango da, baliabide gisa. Zer langile behar diren ikusiko da, bai ereiteko bai kontsumorako patatan, eta sasoikako planari lotuta.

C. AZPIEGITURAK ETA EKIPAMENDUA

Arabian ereiteko patata bultzatzeko, inbertsioan lagundu behar da, ekoizleek egiturazko eta merkatuko erronkei erantzun ahal izan diezaieten, bideragarritasuna baldintzatzen dute eta. Jarraian, inbertsioei lotutako ekintza nagusien berri emango da. Funtsean, inbertitzeko laguntza publikoetara bideratuta daude, eta neurri bakoitzaren elementu giltzarriak zehaztuko dira.

15. Inbertsioa modernizazioan. Foru-aldundien laguntza-lerroa mantenduko da, produktibitatea hobetu eta kostuak murriztu nahi dituzten ustiategiak modernizatzeko. Aldi berean, laneko segurtasuna eta ergonomia indartuko dira. Hona hemen zein inbertsio lagunduko diren diruz: ureztatze eraginkorrerako ekipoak, ereiteko ustiategietara egokituta; nekazaritzako makineria espezifikoak (ereiteko makinak, paketatze makinak, atoiak, etab.); eta produktuarekin ibili eta hura garraiatzeko azpiegitura osagarriak.

16. Inbertsio berritzailea/teknologikoa. Laborantzaren ekoizpenean eta kudeaketan teknologia disruptiboak eta irtenbide aurreratuak ezartzea sustatuko da, jasangarritasun- eta efizientzia-irizpideei jarraituz. Adibidez, Handitu Innovaren tankerako laguntzak emango dira, edota esperimenezko proiektu pilotuak egingo dira prozesuetan edo garapen teknologiko-digitaletan, jarduera agronomiko edo logistikoetan, bereziki intsumoen erabilera edo ingurumen-inpaktua murrizten badituzte.

17. Makineriaren erabilera partekatua sustatzea. Nekazaritzako makineria batera erosi edo kudeatzeko pizgarriak sustatuko dira, ustiategi bakoitzaren kostu unitarioak murrizte aldera. Aldi berean, balio tekniko handia eta kostu handia dituzten ekipamenduak eskuratzea erraztuko da, eta gertu dauden ustiategien arteko edo kooperatiben barruko elkarlana indartuko da.

18. Laguntzen eskuragarritasun unibertsala. Ekoizpen- eta inbertsio-elementuetarako laguntzak sektore operadore-mota guztienganaino iristen direla bermatuko da, baldintzak eta eskakizunak egokituz: nagusiki nekazari direnak, ustiategi txikiak edo ekoizle berriak, eta kooperatibak, zerbitzu-enpresak edo ekimen kolektibizatuak.

19. Produktua kudeatu, kontserbatu eta balorizatzeko inbertsioak. Laguntza publikoak emango dira (Lehiatu eta beste batzuk) uztaren osteko logistika- eta kontserbazio-zentroak sortu eta hobetzeko, patataren balio-katea indartzen dutenak. Inbertsioetako batzuk hauek izan daitezke: produktua eskuztatu, kalibratu, kontserbatu edo ontziratzeko espazioak, edo trazabilitate- eta ziurtapen-sistemak bateratzen dituzten azpiegiturak.

D. POSIZIONAMENDUA

Kapitulu honetan, Arabako patataren balio bereizgarria berreskuratzeko ekintza estrategiko batzuk jaso dira. Erreferentziazko produktu gisa kokatu nahi da kalitateari, hurbiltasunari eta jasangarritasunari dagokienez, ezagut daitekeen nortasun sendoarekin, eta merkatuaren eskaera berriekin lerrokatuta.

20. “Arabako Patata” jatorri-deitura babestua bultzatzea, Arabako ereiteko patataren izen ona eta aintzatespena kalitatearen erreferentzia gisa berrezartzeko estatuan eta Europan, irizpide teknikoak, kultur balioak eta merkataritza-posizionamendua konbinatuz. Jatorri-deitura babestuak ahalegina egitea eskatuko du sektorean, gainera, ereiteko patataren kalitate-estandarrak igotzeko. Horren barruan, landare-osasuna edota merkataritza-aurrezpena egongo dira, lehen aukeratzat hartu dadin hala lurralde honetan, nola hirugarren merkatuetan.

21. Kontsumorako patata sustatzea. Hainbat azpiekintza izango dituen posizionamendu-ekintza, mundu-mailan. Bide horretan, hartzaile objektiboak kontuan hartuko dira, eta, besteak beste, elikagai-heziketari buruzko programak abiaraziko dira, arreta ezaugarri hauetan jarriko: sasoikotasuna, motak, kontsumitzeko moduak eta kalitate-bereizgarriak. Orobat, programa espezifikoak egingo dira profesional gastronomikoentzat, elikagaigintzarako, etab.

22. Eskaera berriak merkatuan. Produktu-kategoria berriekin bat datorren eskaintza garatuko da. Categoria horien adibide dira IV. eta V. Gamak edota produktu izoztua edo prozesatua. Beti ere, hurbiltasunetik, jasangarritasunetik eta tokiko balio erantsitik ikusita. Sektore osoa eta 0 kilometrokoa eraiki nahi da, lehen mailako ekoizpenari erantzuteko gauza izango dena, baina baita eraldaketa arinari ere, merkatu-nitxo berrietan. Lan-ildo honen oinarria merkatuko joeren jarraipena eta merkatuaren azterketa izango da, eskura dauden tresnak baliaturik; esate baterako, HAZIren Behatokia. Hala, erabaki estrategikoak eta kontsumitzaileen benetako eskaerak bat datozela bermatuko da.

E. GOBERNANTZA

Sektore-plana martxan jarri ahal izateko, gobernantza sendoa eta koordinatua behar da, emaitzei begira dagoena. Hartara, ahalegin publikoak eta pribatuak bateratu ahalko dira, egungo zatikatzea gainditu eta sektoreari tresna eraginkorrak eman, ikuspegi partekatuarekin aurrera egiteko. Halaber, kontrol- eta jarraipen-tresnak emango dira, planean jasoko diren ekintzetarako:

23. Sinplifikazio administratiboa. Patataren balio-katearen arloetan eskumenak dituzten administrazio publikoek sektoreko eragileen eta administrazio publikoen arteko harremana optimizatzeko neurriak garatuko dituzte, behar ez diren zama burokratikoak murriztu eta laguntzeko tresnak eskuratzea errazteko. Horretarako proposatzen da erakundeen rolak argitzea eta administrazio-sailen eta -mailen arteko kontaktu- eta koordinazio-puntuak hobetzea. Alde horretatik, azken helburua administrazio eraginkorrago eta irisgarriagoa lortzea da, zeina gainera emaitzei begira dagoen.

24. Sektorea egituratzea. Patataren sektoreko antolaketa are gehiago sendotu behar da (kontsumorako eta ereiteko patata). Horretarako, merkataritza-erronkak ez ezik, ekoizpen- eta logistika-erronkak ere batera lantzeko egiturak sustatu behar dira. Hala, sektorea antolatzekeo jarduerak bultzatzeko lanarekin jarraituko da, elkartee-edo enpresa-formulak baliatuta. Kontzentrazioarako, lankidetzarako eta baliabide zein bitarteko materialak (traktoreak eta makineria kasurako) partekatzekeo prozesuak sustatuko dira, halaber.

25. Patataren sektoreko elkarrizketa-foroa. Jada abian dagoen lan-foroari (patataren mahaia) jarduera eta dinamismo handiagoak emango zaizkio, ekoizpen-sektorearen eta sektoreko administrazioaren arteko elkarrizketa-foroa bideratuz. Horren barruan, diagnostikoak egin daitezke, bai eta sektorearen jasangarritasuna hobetzeko balio dezaketen planak adostu, garatu eta abiarazi ere.

26. Idazkaritza teknikoa. Plana eraginkortasunez betetzen dela eta jarraipena egiten dela bermatze aldera, gobernantza publiko-pribatuko esparru bat finkatuko da, jarraitutasuna, gardentasuna eta koordinazioa ziurtatuko dituen. Sektoreko foroarekin batera, behar diren jarraitutasuna, intentsitatea eta kontrola eskainiko ditu plan hori ezartzeko prozesuan. Era horretan, eta Eusko Jaurlaritzaren

ardurapean, planaren idazkaritza teknikoaren definituko da: ekintzak koordinatuko dituen unitate operatibo bat, gobernantza-esparrua ere dinamizatuko duena.

27. Aginte-taula. Planaren jarraipen-sistemaren barruan, adierazle giltzarriak definituko dira, aginte-mahai operatibo batean egituratuko direnak. Horien bitartez, ekintzen betetze-maila eta sektorean duten benetako inpaktua modu objektiboan ebaluatu ahal izango dira. Sistema horrek erraztuko du erabakiak datuetan oinarrituta hartu ahal izatea. Orobat, kontuak emateko prozesua hobetuko du eta plan horren inplementazioan doikuntzak bizkor eta oinarriekin egiteko aukera emango du.

4. AGINTE TAULAK

ESKU-HARTZEATIK ESPERO DEN ERAGINA - PATATAREN PLAN SEKTORIALA			
EREITEKO PATATA			
Euskadi, eta bereziki Araba, kalitate handiko hazitarako patataren ekoizpenean erreferente gisa kokatu nahi da, bere aldeko baldintzak eta nekazarien konpromisoa aprobetxatuz.			
Premisa	Produkzioaren % 50eko hazkundea bost urtean, babestutako barietate propioen % 25 izanik		
Suposizioak	Egungo ekoizpena, gutxi gorabehera, Araban	5.500	urteko tonak (azaleretan eta errendimendu tipikoetan oinarritutako datu orientagarria)
	Tonako batez besteko prezioa (hazitarako patata saltzea)	700	€/t (kalibreen eta batez besteko prezioen arabera zigilatutako kopuruaren arabera: 2022:670 €/t, 2023:750 €/t eta 2024:850 €/t)
	Sektorearen egungo balio ekonomikoa Araban	3,85	milioi €
	Bolumen berria, % 50eko igoeraren ondoren	8.250	tonak
Impacto	Balio ekonomiko berri zenbatetsia	5,78	milioi €
	Balio ekonomikoaren gehikuntza	1,93	milioi €urteko
	Tokiko BPGren gaineko efektu biderkatzailea (agroindustria, logistika, hornidurak). 1,8ko multiploa kontuan hartuta	3,47	milioi €ko urteko inpaktu ekonomiko zenbatetsia, guztira
	Nekazaritzako errentagarritasuna hobetzea (kontsumorako patata baino balio erantsi handiagoa), hektareako marjina gordina handitzea		
	Tokiko balio-katea indartzea, kooperatibak, hautaketa-zentroak eta enpresa hornitzaileak bultzatuz		
	Inportatutako haziaren mendekotasuna murriztea, produkzio-subiranotasun handiagoa eta arrisku fitosanitarioak minimizatzea		
	Merkatu nazionalen lehia-posizionamendua, hazi ziurtatuaren hornitzaile gisa		
KONTSUMORAKO PATATA			
Euskadin ekoizitako kontsumorako patataren ekoizpena eta errentagarritasuna handitzea da helburua, haren prestigioa handituz eta balio-kate osoa indartuz			
Premisa	Landutako azalera 1.000 ha-raino handitzea, azken hamabost urteetan galdutako azalera bost urtetan berreskuratuz		
Suposizioak	Egungo ekoizpena, gutxi gorabehera, Araban	32.000	urteko tonak (azaleretan eta errendimendu tipikoetan oinarritutako datu orientagarria)
	Tonako batez besteko prezioa (salmenta)	400	€/t
	Sektorearen egungo balio ekonomikoa Araban	12,80	milioi €
	Bolumen berria kalkulaturako igoeraren ondoren	47.761	tonak
Eragina	Balio ekonomiko berri zenbatetsia	19,10	milioi €
	Balio ekonomikoaren gehikuntza	6,30	milioi €urteko
	Tokiko BPGren gaineko efektu biderkatzailea (agroindustria, logistika, hornidurak). 1,8ko multiploa kontuan hartuta	11,35	milioi €ko urteko inpaktu ekonomiko zenbatetsia, guztira
	Tokiko balio-katea indartzea, kooperatibak, hautaketa-zentroak eta enpresa hornitzaileak bultzatuz		
	Gazteak patataren sektorean sartzea (patataren ekoizpena itzultzen diren ustategien % 33)	20	sartutako gazteak
	BJD berria. Sektorearen ezagutza eta prestigioa handitzea. Europako sustapen-proiektuetarako sarbidea	1	sustapenean inbertitutako milioika €

ADIERAZLEEN TAULA - PATATAREN PLAN SEKTORIALA

MIKRO HELBURUA	ADIERAZLEA	Egungo (25)	Bitartekoa (28)	Helmuga (30)
1. Landatutako azalera handitzea (hazitarako patata eta kontsumorako patata)	Hazitarako patataren azalera (ha)	475 ha 25/26 kanpainan (azken 5 urteko batazbestekoa: 501)	550	712,50
	Jateko patataren azalera (ha)	669	800	1.000
2. Kalitatea eta errendimendua handitzea (hazitarako patata eta kontsumorako patata)	Hazitarako patataren errendimendua (kg/ha)	13.107 kg/ha ziurtatuak 24/25 kanpainan (azken 5 urteko batazbestekoa: 15.106 kg/ha)	15.375	15.759,38
	Kontsumorako patataren errendimendua (kg/ha)	47.920		
	Gaitzetsiak % gaixotasunagatik	% 10,5 (2024)	0,03	0,02
	Hazitarako patataren ziurtagirien kilogramoa handitzea	5.331.377 kg ziurtatuak 24/25 kanpainan (azken 5 urteko batazbestekoa: 7.166,858)	7.272.375	9.656.557
3. Ekoizpen- katea merkatuaren eskarietara egokitzea	BJDak sortzea	0	1	1
	Arabako patata- produktuen merkatuko erreferentzia- kopurua	5	8	10

JARRAIPEN-KOADROA - PATATAREN PLAN SEKTORIALA										
Esku-Hartzearen Ardatza	AD	Izena	Jabea	26	27	28	29	30	Tresna / Programa	Gutxi Gora. Aurrekontua
Ezagutza	1	Ad hoc ezagutza sortzea	HAZI						BEHATOKI	50.000 €
Ezagutza	2	Sektorerako prestakuntza-programak	HAZI / NEIKER						EP	200.000 €
Ezagutza	3	I+G+Bren garapena landa-eremuan	NEIKER						FINKA FARO	400.000 €
Ezagutza	4	Barne-ezagutza trukatzeta	EJ						AKIS FOROA	6.000 €
Ezagutza	5	Ikuskatzaile talde espezializatuaren laguntza	EJ							N/D
Ezagutza	6	Proiektu pilotuak/erakusleak	NEIKER							N/D
Ezagutza	7	I+G+b arloko akordio estrategikoak	NEIKER							400.000 €
Iraunkortasuna	8	Minituberkuluaren aseguramendua	NEIKER							1.000.000 €
Iraunkortasuna	9	Nekazaritza-ingurumeneko laguntzak mantentzea	AFA							500.000 €
Iraunkortasuna	10	Produktu fitosanitarioak etengabe berrikustea	NEIKER							N/D
Iraunkortasuna	11	Uraren erabilera optimizatzea	AFA							N/D
Iraunkortasuna	12	Patataren nekazaritza-aseguruaren kontratazioa sustatzea	AFA							N/D
Iraunkortasuna	13	Patataren sektorean gazteak sartzea	EJ / AFA						ERRELEBOA + DIBERTSIFIKAZIOA	1.000.000 €
Iraunkortasuna	14	Eskulaneko baliabideen zuzkidura	EJ / AFA						SASOIKAKO LANAREN PROGRAMA	N/D
Azpiegiturak	15	Modernizazioan inbertitzea	AFA						MODERNIZAZIOA	N/D
Azpiegiturak	16	Inbertsio berritzailea / teknologikoa	EJ						HANDITU INNOVA	1.500.000 €
Azpiegiturak	17	Makinen erabilera partekatua sustatzea	AFA / SEKTOREA						CUMAS	N/D
Azpiegiturak	18	Laguntzen irisgarritasun unibertala	EJ / AFA							N/D
Azpiegiturak	19	Produktua kudeatzeko, kontserbatzeko eta balioztatzeko inbertsioak	EJ						LEHIATU INB	4.000.000 €
Posizionamendua	20	"Arabako patata" JDB"	EJ / HAZI							50.000 €
Posizionamendua	21	Kontsumorako patataren sustapena	EJ / HAZI							250.000 €
Posizionamendua	22	Merkatu-eskari berriak	SEKTOREA / NEIKER							N/D
Gobernantza	23	Sinplifikazio administratiboa	EJ / AFA							N/D
Gobernantza	24	Sektorearen egituraketa	SEKTOREA							N/D
Gobernantza	25	Patataren sektoreko elkarrizketa-foroa	EJ							N/D
Gobernantza	26	Idazkaritza Teknikoa	EJ							N/D
Gobernantza	27	Aginte-taula	EJ							N/D

GUTXI GORABEHERRAKO AURREKONTUA: 9.356.000 €

